



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO ZERRENDAK

53. buletina (2008ko azaroaren 18an argitaratua)

Laburpena:

- **INGURUMEN PLANGINTZA ETA HONDAKINEN KUDEAKETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO ZERRENDA SORTZEA.**
- **LANERAKO PRESTAKUNTZARAKO IRAKASLEA (ITURGINTZA ESPEZIALITATEA) ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO ZERRENDA SORTZEA.**
- **BESTE KATEGORIAREN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO ZERRENDETAN DAUDEN KARRERAKO FUNTZIONARIOEN EGOERARI BURUZKO ARGIBIDEAK.**
- **“IT TXARTELAK” EGUNERATZEARI BURUZKO ARGIBIDEAK.**
- **KONTRATAZIO ZERRENDETAKO EGOERA. ESKAINTZAK SIMULATZEARI BURUZKO ARGIBIDEAK.**

• CREACIÓN DE LA LISTAS DE CONTRATACIÓN TEMPORAL:
--

- **Ingurumen Plangintza eta Hondakinen Kudeaketako goi mailako teknikaria (LC06-2008).**
- **Lanerako prestakuntzarako irakaslea (iturgintza espezialitatea). (LC07-2008)**

Udalaren web orrian (www.vitoria-gasteiz.org) argitaratu dira ondorengo kontratazio zerrendak handitzeko deialdiaren oinarriak. **Eskabideak aurkezteko azken eguna: 2009ko urtarilaren 9a.**

Argibideak Espainia plazako eta Europa jauregiko argibide eta erregistro bulegoetan nahiz herritarrei laguntzeko bulegoetan. Baita 010 telefonoan (945 161000) eta Udalaren web orrian ere: www.vitoria-gasteiz.org (LEP edo enplegua eta prestakuntza ataletan – Udalaren enplegu eskaintza- Hautatze prozesuak).

Eskabideak: www.vitoria-gasteiz.org (LEP edo enplegua eta prestakuntza atalak – Udalaren enplegu eskaintza – Izen-emateak).

Jarraipena: www.vitoria-gasteiz.org (LEP edo enplegua eta prestakuntza atalak – Udalaren enplegu eskaintza – Hautatze-prozesuak).

• **BESTE KATEGORIAREN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO ZERRENDATAN DAUDEN KARRERAKO FUNTZIONARIOEN EGOERARI BURUZKO ARGIBIDEAK**

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkararen azaroaren 4ko ebazpen bat dela medio, zerbitzu aktiboan dauden Gasteizko Udaleko karrerako funtzionarioek, baldin eta kontratazio zerrendetan sartuta badaude, udaletxean lanean ari diren zerrenda horietako gainerakoek bezalaxe parte hartuko dute sortzen diren lan-eskaintzetan, hau da, "hoberako eskaintzak" baino ez zaizkie egingo.

Kontratazio eskaintzarik egitekotan, interesdunak 'alta / laneratzeko gertu' egoeran egon behar du, eta hori ez da bateragarri lanean aritzearekin, dela bitarteko langile gisa, dela karrerako funtzionario gisa. Salbuespen bat jasotzen da araudian, "hoberako kontratuak", batez ere sei hilabetetik gorako eta lanaldi osoko bitarteko kontratuak, hutsik dauden nahiz programa jakin baterako diren lanpostuetarako.

Karrerako funtzionarioei, beraz, honako hauetan egingo da eskaintza, berei badagokie: lanaldi osoko eta sei hilabetetik gorako kontratuak direnean, baldin eta eskaintakoa hartzeak egungo lanpostuaren destinoko osagarria handitzea ekarriko badu berekin.

Alde horretatik, kontratazio eskaintzeak kudeatzerakoan berdin jokatzeko da goragoko kategorietako zerrendetan dauden karrerako funtzionarioekin eta hutsik dagoen lanpostu baterako edo programako lanpostu baterako ordainsari-maila (DO) txikiagoko zerrenda batetik kontratatuta dagoen zerrendako beste edozeinekin.

• **"IT TXARTELAK" EGUNERATZEARI BURUZKO ARGIBIDEAK.**

"IT Txartela" egiaztagirien eguneratzea hobetu asmoz, prozedura hau jarraituko da 2008ko abenduaren 1etik aurrera:

- 1) Interesatua harremanetan jarriko da Hautapen eta Garapen Atalarekin, dela zuzenean bulegoetara joanda (San Prudentzio kalea, 34 - 3. solairua), dela telefonoz (945.161.653 / 945. 161.956), dela posta elektronikoz, helbide hauetakoren batean: seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org edo seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org
- 2) Interesatuak ondoko datuak emango ditu:
 - NANA (zenbakia eta hizkia)
 - IT Txartelaren web-orrian (<http://www1.eeuskadi.net/gucfull/userHistory.jsp>) IT Txarteleko datu pertsonaletara sartu eta erabiltzailearen historiala eskuratzeko aukera ematen duen GAKO PERTSONALA, .
 - Interesatuak bere dosierari gehitu nahi dizkion IT Txartelen izenak.
- 3) Hautaketa Ataleko administrariak **erabiltzailearen historia** kontsultatuko dute **IT Txartelen erregistroan**, interesatuak berak emandako gakoak erabiliz. Erregistroan egiaztatu ondoren, egiaztagiri berriak gehituko ditu dosierrean.

• **KONTRATAZIO ZERRENDETA KO EGOERA. ESKAINTZAK SIMULATZEARI BURUZKO ARGIBIDEAK.**

2008ko abenduaren 1etik aurrera, Hautaketa Atalak kontsultatu nahi den zerrendan Alta / lanerateko egoeran dauden pertsonen gertutasun-egoerari buruzko informazioa emango du [soilik](#).

Informazioa "Kontratuaren gutxieneko iraupena" parametroari buruzkoa izango da [soilik](#).

Web-orriko simulagailuaren bitartez kontsulta xehekatuak egin daitezke, parametro eta parte hartzeko baldintza guztiekin, egoera kontuan hartu gabe.

-
- Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)
 - Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>
 - Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**